

1950-I-27

Donostia'n, Ekauta'ren jauregia'n, mila bederatzireun eta barrogetamar garren urteko Ilbelta'ren ogetazazpi'an, Etxaide, Elissalde, Lafitte, Dassance, Krutwig, Irigaray, Lekuona ta Oleaga euskaltzain jaunak etorririk, eta Azkue jauna maipuru dabela, egiten da il oneri dagokon Euskaltzaindia'ren batzarra.

Araudizko otoitza egin ondoren lenagoko batzar-agiria irakurten da. Guztiok onetsi dabe.

Urrengo Lekuona jaunak, sarrera-itzaldi antzera, lan eder bat dirakur. Bertan agertzen daben asmoa da *Euskaldunak* idazpurudun Nicolas Ormaetxea (Orixe)-k eskuartean darabilan olerkia agertzeko bear dan baimena lortzeko Euskaltzaindia'k aldan bestean lagundu bear leuskiola. Poz-pozik entzun da Lekuona jaunaren lan eder au eta aobatez onetsia izan da eta bere asmoa betetea erabagi da. Bere gain utzi da onezaz zer egin leiteken adierazotea.

Oleaga jaunak adierazoten dau urrengo beste ainbeste egin bear litakela Tomas Aguirre (Barrenso)k egindako UZTARO deritxon irakurgaia bigarrenez argitaratuteko. Au bere, aobatez erabagi da.

Gero Etxaide jaunak darakus Zabala euskaltzain-urgazleak gerturiko lan sakona. Toki-izenak da bere gaia. Ganera Etxaide jaunak dino lan au Boletin de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del Päs"-en argitaratuko dala.

"De euskeralogia. El acento prosódico en las palabras vascas" idazpuruz Zamarripa euskaltzain jaunak egindako lan bat irakurri da.

Urrengo, Krutwig jaunak irakurri dau "Euskararen idatzi hizkuntza" idazpurudun lan eder bat.

Azkenez adierazo da "United Nations"-en zabalkunde zaingoak euskeraz argitaratu dabela "Gizona'ren eskubidegai guzietez aitorkizuna", 1948'garrengo Gabonila'ren 10'garrenean, Erri Batzartuen Batzarre osoak ontzat artu zun eta zabaldu zun bezela.

Atsegiñez entzun dira azkenengo lau lanok.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburua*  
Resurreccion M.<sup>a</sup> Azkue

*Zadortaria*  
Nazario Oleaga